

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zein da gure bezeroa? Zeintzuk dira bezero horien ezaugarriak?

Gure merkatua oso zabala da. Ez da merkatu masiboa, nitxo batzuk ditugu. Ezaugarri geografiko, pertsonal, psikografiko eta portaerazko askotariko pertsonentzat saltzen dugu gure produktua. Ezaugarri demografikoei dagokienez, edozein genero eta adinetako jendeari zuzenduta dago gure produktua; hala ere, haien ahalmen ekonomikoak badu eragina, gure marka prezio ertain-altua ordaintzeko prest dauden pertsonen zuzendua baita batez ere. Hau da, ez luxuzko arropa bezain garestia erosten dutenei, baina bai arropen prezio arrunta baino zertxobait altuagoa ordaintzeko prest daudenei.

Enpresaren abiapuntuko ideia da “gorputz normatiboa” ez duten pertsonen arropa egokia erosteko aukera izatea: esaterako, enanismoa dutenek, gizentasuna dutenek, anputazioak dituztenek... Hala ere, edonork eros dezake gure dendan, moda pertsonalizatua eskaintzen dugulako eta inklusibotasuna baita gure markaren helburu nagusia.

Merkatuaren nitxo nagusietako bat ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonak izango dira, edozein genero eta arrazakoak, baina ahalmen ekonomiko ertain-altua dutenak. Hauen artean egongo dira enanismoa edo gigantismoa duten pertsonak, jaiotzerakoan gorputz-atal bat faltan zutenak...

Beste nitxo handi bat bizitzan zehar aldaketa fisiko nabarmenak jasan dituztenak izango dira, beti bezala, genero edo arrazaren arabera segmentatu gabe, baina ahalmen ekonomiko ertain-altua dutenak. Hauen artean egongo dira tamaina estandarra baino handiagoa direnak (dendetan eskaintzen den taila baino altuagoa dutenak XXL<) edo edozein arrazoiengatik txikiago edo argalagoak (XXS>) edo normatiboa baino altuago edo baxuagoak direnak, eta ondorioz arropa motz edo luze dutenak (~185cm< edo 150cm>-ko helduak edo honekiko neurketa proportzionalako haurrak); edo ebakuntza batengatik deformitate edo ez-normaltasunen bat dutenak (anputazio bat, adibidez), eta abar.

Azkenik, nitxo nagusi bat arropa pertsonalizatua arrazoi pertsonalengatik nahi dutenak dira. Aurreko ezaugarri demografiko berdinak izango dituzte, baina beharbada traje pertsonalizatu bat edo guztiz ondo geratzen zaizkien galtza batzuk nahi dituztenak.